17/10/2025
2025 - 4
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
k0144708b0031107cb107e908b0a0a21J



## AKUADRILLAKO BATZARRAK 2024KO UZTAILAREN 30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAREN AKTA.

Santikurutze Kanpezun, 2025eko uztailaren 30ean, Arabako Mendialdeko Kuadrillaren egoitzan, Kuadrillako Batzarra bildu da, ezohiko bilkuran eta lehenengo deialdian, Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jauna buru dela, eta honako batzarkideak elkartu dira:

Vicuña Ibañez, Alfredo
Elorza Lorenzo, Lucía
Gaintzarain González de Durana, Urtzi
Nuñez Murillo, Rafael
Quintana Urrea, Myriam.
Sáez de Ocariz Samaniego, Unai
Waliño Arana, Larraitz.
Moraza Pérez, Enrique Javier
Fernandez de Monje Alzola, Ana Asunción

Era berean, Joana Atucha Undurraga andrea, Arabako Mendialdeko Kuadrillako gerente-letradua, bertaratu da.

Presidenteak bilkura hasi du, 18:36an, eta jendaurrekotzat jo du, hasteko beharrezkoa den bertaratze-quoruma egiaztatu ondoren, TAOLeko 46.2 c artikuluaren, AJAko 90. artikuluaren eta Kuadrillei buruzko 63/1989 Foru Arauaren 25. artikuluaren arabera, gai-zerrendan jasotako honako gai hauek aztertu dira:

**1.- <u>URIZAHARREKO UDALAREN ORDEZKARIA, KUADRILLAKO BATZARKIDEA KARGUAZ JABETZEA.</u>**

Presidenteak Urizaharreko osoko bilkurak, 2025eko ekainaren 17an, hartutako erabakiaren ziurtagiria irakurtzen du. Horren bidez, Alfredo Vicuña Ibañez Arabako Mendialdeko Kuadrillako batzarkide titularra izendatzen da, 63/1989 Foru Araua,

## ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DE JUNTA DE CUADRILLA CELEBRADA EL DIA 30 DE JULIO DE 2025.

En Santa Cruz de Campezo, a 30 de julio de 2025, en la sede de la Cuadrilla de Montaña Alavesa, se reúne la Junta de Cuadrilla, en sesión extraordinaria y en primera convocatoria, bajo la presidencia del Sr. D. Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz, y concurren los junteros y las junteras siguientes:

Vicuña Ibañez, Alfredo
Elorza Lorenzo, Lucía
Gaintzarain González de Durana, Urtzi
Nuñez Murillo, Rafael
Quintana Urrea, Myriam.
Sáez de Ocariz Samaniego, Unai
Waliño Arana, Larraitz.
Moraza Pérez, Enrique Javier
Fernandez de Monje Alzola, Ana Asunción

Así mismo, asiste a la Sesión Dª. Joana Atucha Undurraga, gerente-letrado de la Cuadrilla de Montaña Alavesa.

Abierta la Sesión y declarada pública por la presidencia a las 18:36 horas, previa comprobación del quórum de asistencia preciso para que pueda ser iniciada, de acuerdo con los artículos 46.2 c de la LBRL, 90 del ROF y 25 de la Norma Foral 63/1989 de Cuadrillas, se procede a conocer de los asuntos siguientes incluidos en el Orden del día:

**1<u>.- TOMA DE POSESIÓN DEL JUNTERO DE CUADRILLA REPRESENTANTE DEL AYUNTAMIENTO DE PEÑACERRADA.</u>**

El presidente procede a la lectura de la certificación del acuerdo adoptado en la Sesión Plenaria del Ayuntamiento de Peñacerrada del día 17 de junio de 2025, por el que se designa a D. Alfredo Vicuña Ibáñez como Juntero titular de la Cuadrilla de Montaña Alavesa al amparo del

17/10/2025
2025 - 4
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
k0144708b0031107cb107e908b0a0a21J



azaroaren 20koa, kuadrillei buruzkoak bere 16.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Gainerako batzarkideek izendapenaren berri izan dute, eta batzarkide berriak kargua hartu du. Arabako Batzar Nagusiei horren berri emango zaie.

artículo 16.2 de la Norma Foral 63/1989, de 20 de noviembre, de Cuadrillas.

El resto de Junteros se dan por enterados del nombramiento y el nuevo Juntero toma posesión de su cargo. Se notificará al respecto a las Juntas Generales de Álava.

**2.- 2025EKO MAIATZAREN 29AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

Presidenteak galdetu du ea batzarkideren batek oharren bat egin nahi duen 2025eko maiatzaren 29an egindako ohiko bilkuraren aktari buruz, zeina bilkurarako deialdiarekin batera bidali baitzen.

Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako hamar batzarkideen aldeko botoarekin, aho batez erabaki du 2025eko maiatzaren 29an egindako ohiko bilkuraren akta ONARTZEA.

**2.- APROBACIÓN, SI PROCEDE DEL ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL 29 DE MAYO DE 2025**

El presidente pregunta si algún juntero o juntera quiere formular alguna observación al acta de la sesión ordinaria celebrada el 29 de mayo de 2025 que se remitió junto con la convocatoria de sesión.

La Junta de Cuadrilla, por unanimidad, con el voto a favor de los/as diez junteros/as asistentes, acuerda APROBAR el al acta de la sesión ordinaria celebrada el 29 de mayo de 2025.

**3.- ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAK ADINEKOEN KONTSEILU SEKTORIALEAN IZENGO DITUEN ORDEZKARIA IZENDATZEA**

Presidenteak Gizarte Politiketako foru diputatuak bidalitako idazkiaren berri eman du. Horren bidez, Adinekoen Kontseilu Sektorialean kuadrillak izango duen ordezkaritza (titularra zein ordezkoa) izendatzeko eskatzen da, Adinekoen Kontseilu Sektorialaren Erregelamenduaren 2019ko otsailean egindako aldaketan oinarrituta.

Horri dagokionez, adierazi du Ibernalo Erretiratuen Elkarteari kontsulta egin ondoren, Juana María Musito Ochoa andrea proposatu dutela ordezkari gisa, eta Roberto

**3.- DESIGNACIÓN DE LOS REPRESENTANTES DE LA CUADRILLA DE MONTAÑA ALAVESA EN EL CONSEJO SECTORIAL DE PERSONAS MAYORES**

El Presidente da cuenta del escrito remitido por el Diputado Foral de Políticas Sociales por el que se solicita se designe a la representación (tanto titular como suplente) de la Cuadrilla en el Consejo Sectorial de Personas Mayores, al amparo de la modificación realizada, en febrero de 2019, del Reglamento del Consejo Sectorial de Personas Mayores.

A este respecto señala que consultada la Asociación de Jubiladas y Jubilados Ibernalo proponen como representante a Dª Juana María Musito Ochoa y suplente a D. Roberto Saenz Martínez de Antoñana.

2025 - 4
17/10/2025
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
k0144708b0031107cb107e908b0a0a21J

Saenz Martínez de Antoñana jauna ordezko gisa.

Bozketa egin ondoren, Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako hamar batzarkideen aldeko botoarekin, aho batez erabaki du Juana María Musito Ochoa andrea izendatzea ordezkari titular eta Roberto Saenz Martínez de Antoñana jauna ordezko

Someitdo a votación, la Junta de Cuadrilla, por unanimidad, con el voto a favor de los/as diez junteros/as asistentes, acuerda nombrar como representante titular a Dª Juana María Musito Ochoa y como suplente a D. Roberto Saenz Martínez de Antoñana.

**4.- 2024KO KONTU OROKORRA ONARTZE**

Gerente-letraduak adierazi du legezko izapidea dela, jarraian azaltzen diren artikuluen babespean, eta 2024ko ekitaldiko aurrekontu-kontabilitatea ondare-kontabilitatera transkribatzea dakarrela.

Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 208. artikuluan zehazten denez, toki-erakundeek, aurrekontu-ekitaldia amaitzean, kontu orokorra egingo dute, ekonomia-, finantza-, ondare- eta aurrekontu-alderdietan egindako kudeaketaren berri emateko.

Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 3ko 56/2015 Foru Dekretuak, Arabako Lurralde Historikoko toki-erakundeen kontabilitatearen arau-esparrua onartzen duenak, 3. eranskineko hirugarren zatiko 1.1 puntuan ezartzen du erakundeek eratu beharreko kontuek eta estatuek honako zati hauek izango dituztela:

Balantzea.
Ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua.
Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria.

**4.- APROBACIÓN DE LA CUENTA GENERAL DE 2024.**

La gerente-letrado indica que se trata de un trámite legal, con amparo en los artículos que se exponen a continuación y que implica la transcripción de la contabilidad presupuestaria del ejercicio 2024 a contabilidad patrimonial.

El Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, determina en su artículo 208 que las Entidades Locales, a la terminación del ejercicio presupuestario, formarán la Cuenta General que pondrá de manifiesto la gestión realizada en los aspectos económico, financiero, patrimonial y presupuestario.

El Decreto Foral 56/2015, del Consejo de Diputados de 3 de noviembre, que aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales del Territorio Histórico de Álava establece en el Anexo 3, tercera parte, punto 1.1 que las Cuentas y Estados a formar por las Entidades constarán de las siguientes partes:

Balance.
Cuenta de resultado económico-patrimonial.
Estado de cambios en el patrimonio neto.

2025 - 4
17/10/2025
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
k0144708b0031107cb107e908b0a0a21J



Diru-fluxuen egoera-orria.

Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria

Memoria.

El estado de flujos de efectivo.

Estado de liquidación del presupuesto

Memoria.

Arabako Mendialdeko Kuadrillaren 2024ko ekitaldiko kontu orokorraren edukia aztertu da. Kontu hori aipatutako araudiaren eta gainerako xedapen aplikagarrien arabera egin da, eta ekitaldira bertaratu direnek AHO BATEZ erabaki dute:

Visto el contenido de la Cuenta General de la Cuadrilla de Montaña Alavesa correspondiente el ejercicio de 2024, confeccionada de acuerdo con la citada normativa y demás disposiciones aplicables, la Junta de Cuadrilla por UNANIMIDAD de los asistentes al acto, acuerda:

LEHENENGOA.- Behin-behinean onestea Arabako Mendialdeko Koadrilaren 2024ko ekitaldiko kontu orokorra.

PRIMERO. - Aprobar provisionalmente la Cuenta General de la Cuadrilla de Montaña Alavesa, correspondiente al ejercicio de 2024.

BIGARRENA.- Behin-behinean onartzea erakunde honen Ondasunen Inbentarioaren zuzenketa 2024ko abenduaren 31n, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 31. artikuluan xedatutakoaren arabera.

SEGUNDO. - Aprobar provisionalmente la rectificación del Inventario de Bienes de esta Entidad al 31 de diciembre de 2024, conforme a lo dispuesto en el artículo 31 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

HIRUGARRENA. – Toki Ogasunak arautzen dituen Legean xedatutakoaren arabera, 2024ko Kontu Orokorra jendaurrean jarriko da hamabost egunez, eta, epe horretan, interesdunek erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak aurkeztu ahal izango dituzte.

TERCERO. - Conforme a lo dispuesto en la Ley reguladora de Haciendas Locales, la Cuenta General de 2024 se expondrá al público durante el plazo de quince días, durante los cuales los interesados podrán presentar reclamaciones, reparos u observaciones.

LAUGARRENA.- Erabaki hauek behin betiko bihurtzea, erreklamaziorik aurkezten ez bada; bestela, Koadrilako Batzarra bilduko da aztertu eta beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egiteko.

CUARTO. - Elevar a definitivos los presentes acuerdos en caso de que no se presenten reclamaciones, en caso contrario, se reunirá la Junta de Cuadrilla para su examen y para realizar cuantas comprobaciones estime necesarias

**<u>5.- EUSKO JAURLARITZAKO ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA</u>**

**<u>5.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA CONCURRENCIA A LA AYUDA OTORGADA POR</u>**

17/10/2025
2025 - 4
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
k0144708b0031107cb107e908b0a0a21J



**DEMOGRAFIKOAREN SAILAK IMMIGRAZIOAREN ETA KULTURARTEKO BIZIKIDETZAREN ARLOKO JARDUERAK GARATZEKO EMANDAKO LAGUNTZAREN ESKAERA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Presidenteak hartu du hitza, eta adierazi du 2025eko uztailaren 4an EHAAn argitaratu zela Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren 2025eko ekainaren 18ko Agindua, zeinaren bidez onartzen baitira EAEko toki-erakundeei, toki-erakunde autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko eta immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak, eta 2025erako deialdia egiten baita.

Laguntza horretan aurreikusitako jarduera-ildoetatik bigarrena eskatzea proposatzen da: "Immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko jarduneretarako laguntzak".

Helburua da gatazka sortzen duten eguneroko egoerak eta espazioak detektatzea, arazo horiek saihesteko jarduketa-ildoak ezartzea, espazioak leku atsegin bihurtzea eta herritarrak ahalduntzea kulturarteko gatazka-egoeren aurrean jarduteko.

Helburuak betetze aldera, proposatzen da dirulaguntza kanpoko zerbitzu bat kontratatzeko inbertitzea. Zerbitzu horrek, alde batetik, gatazka sor dezaketen egoerak identifikatzeko landa-lana egingo du, eta, bestetik, esku hartzeko proposamen bat egingo du (bitartekotza-tresnak, prestakuntza, dekalogoa).

Presidenteak adierazi du, hiru aurrekontu eskatu diren arren, bakarra jaso

**EL DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO DEL GOBIERNO VASCO PARA EL DESARROLLO DE ACTIVIDADES EN MATERIA DE INMIGRACIÓN Y CONVIVENCIA INTERCULTURAL**

Toma la palabra el Presidente para explicar, que con fecha 4 de julio de 2025 se publica en el BOPV Orden de 18 de junio de 2025, de la consejera de Bienestar, Juventud, y Reto Demográfico, por la que se aprueban la bases para la concesión de ayudas económicas a Entidades Locales, Organismos Autónomos Locales y Sociedades Mercantiles Locales de la CAPV, para la continuidad de la contratación de personal técnico en inmigración y para el desarrollo de actividades en materia de inmigración y convivencia intercultural, y se efectúa su convocatoria para el año 2025.

De las líneas de actuaciones previstas en la citada ayuda, se propone solicitar la segunda: “Ayudas para actividades en materia de inmigración y convivencia intercultural”.

El objetivo es detectar situaciones cotidianas y espacios que generan conflicto, establecer líneas de actuación para evitar los citados problemas y transformar espacios en lugares amables y empoderar a la población en la detección actuación ante situaciones de conflicto intercultural.

En aras de cumplir con los objetivos, la propuesta que se plantea es invertir la subvención en la contratación de un servicio externo que, por un lado, realice el trabajo de campo con el fin de identificar las diferentes situaciones que pudieran generar conflicto y, por otro, elabore una propuesta de intervención (herramientas de mediación, formación, decálogo).

Señala el presidente que, a pesar de haber solicitado tres presupuestos, hasta la fecha sólo

17/10/2025
2025 - 4
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
k0144708b0031107cb107e908b0a0a21J



dela, hain zuzen ere, 14.210 eurokoa (BEZik gabe) 17.194,10 euroko (BEZa barne).

Argitu du laguntza horrek kostuaren % 75 finantzatu ahal izango duela. Beraz, Kuadrillak gainerako % 25ari egin beharko dio aurre, hau da, 4.298,52 €. Beraz, diruz lagundu ez den zatia udalek eskualdeko udalei egindako ekarpenen kontura egitea proposatzen da, gastu orokorrak likidatzeko koefizienteen arabera, Kuadrillako FOFFEL osoan duen pisu proportzionalaren arabera.

Bozketa egin baino lehen, Enrique Javier Moraza Pérez batzarkideak aktan jaso nahi du ez dagoela proposamenarekin ados; izan ere, jarduera jakin batzuk baztertu direla uste du, aurrekontuan aurreikusita ez daudelako eta, beraz, modu berean jokatu beharko litzateke.

Gaia eztabaidatu da, eta sei batzarkidek aldeko botoa eman dute (Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jaunak, Utzi Gaintzarain González de Durana jaunak, Rafael Nuñez Murillo jaunak, Myriam Quintana Urrea andreak, Unai Sáez de Ocariz Samaniego jaunak eta Alfredo Vicuña Ibañez jaunak) eta Larraitz Waliño Arana andrearen, Lucia Elorza Lorenzo andrearen, Ana Asunción Fernandez de Monje Alzola andrearen eta Enrique Javier Moraza Pérez jaunaren abstentzioarekin, honako ERABAKI HAU hartu da:

LEHENENGOA.- Kuadrillari baimena ematea Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren 2025eko ekainaren 18ko Aginduaren bigarren dirulaguntza-lerroa eskatzeko. Agindu horren bidez, EAEko toki-erakundeei, toki-erakunde autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei dirulaguntzak emateko oinarriak onartzen dira.

BIGARRENA.- Udalek beren gain hartzea proiektuaren defizita, Kuadrillako gastu orokorrak likidatzeko irizpideen arabera, eskualdeko udalaren pisua

se ha obtenido uno por importe de 14.210 € (IVA excluido) 17.194,10 € (IVA incluido).

Aclara que la citada ayuda podrá financiar el 75% del coste. Por lo tanto, la Cuadrilla deberá hacer frente al 25% restante, es decir, 4.298,52 €. Se propone, por tanto, que la parte no subvencionada se haga con cargo a las aportaciones de los Ayuntamientos conforme a los coeficientes de liquidación de gastos generales a los ayuntamientos de la comarca según su peso proporcional en el FOFFEL total de la Cuadrilla.

Previa votación, el Juntero D. Enrique Javier Moraza Pérez desea hacer constar en acta que no está de acuerdo con la propuesta, puesto que, entiende que se han rechazado determinadas actividades por no estar previstas dentro del presupuesto y por lo tanto, habría que actuar de igual modo.

Debatido el asunto, con el voto a favor de seis junteros/as (D. Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz, D. Urtzi Gaintzarain González de Durana, D. Rafael Nuñez Murillo, Dª. Myriam Quintana Urrea, D. Unai Sáez de Ocariz Samaniego y D. Alfredo Vicuña Ibañez) y la abstención de Dª. Larraitz Waliño Arana, Dª Lucia Elorza Lorenzo, Dª Ana Asunción Fernandez de Monje Alzola y D. Enrique Javier Moraza Pérez se adopta el siguiente ACUERDO:

PRIMERO.- Autorizar a la Cuadrilla a solicitar la segunda línea subvencional de la Orden de 18 de junio de 2025, de la consejera de Bienestar, Juventud, y Reto Demográfico, por la que se aprueban las bases para la concesión de ayudas económicas a Entidades Locales, Organismos Autónomos Locales y Sociedades Mercantiles Locales de la CAPV.

SEGUNDO.- Asumir, por parte de los ayuntamientos, el déficit del proyecto según los criterios de liquidación de gastos generales de la Cuadrilla, conforme al coeficiente

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
k0144708b0031107cb107e908b0a0a21J



FOFFELen adierazten duen koefizientearen arabera.

HIRUGARRENA.- Jakintzat ematea Presidenteak dagozkion aurrekontu-aldaketak egingo dituela.

LAUGARRENA.- Kuadrillako Presidenteari ahalmena ematea laguntza lortzeko behar diren dokumentuak sinatzeko eta izapideak egiteko.

representativo del peso del ayuntamiento en FOFFEL total de la comarca.

TERCERO.- Darse por enterados de que la presidencia llevará a cabo las modificaciones presupuestarias que procedan.

CUARTO.- Facultar al presidente de la Cuadrilla a suscribir los documentos y realizar los trámites necesarios para la consecución de la ayuda.

**6.- EUSKARARE ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA ONARTZEA, ZAZPIGARREN PLANGINTZALDIA (2023-2027).**

Presidenteak hitza eman dio Unai Sáez de Ocariz Samaniego batzarkideari, eta hark adierazi du euskararen erabilera normalizatzeko planari buruzko galderak daudela erregistratuta, baina galdera eta eskaeren txandan erantzungo direla. Horregatik, euskara teknikariari hitza eman dio, eta hura gelara sartzen da.

Teknikariak plana aurkeztu du, eta adierazi du Arabako Mendialdeko Kuadrillarentzat izatez hirugarren plana dela. Lehen planean, asmoen adierazpen bat egin zen, hizkuntza-paisaia eta herritarrekiko harremanak landuz. Bigarren planari dagokionez, irudi korporatiboa, herritarrekiko harremana eta langileen arteko harremanak landu ziren.

Hirugarren planari dagokionez (2023-2027), adierazi du plan hori Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretu berrian oinarritzen dela. Dekretu horrek KEMEN izeneko esparru estrategiko berri bat ezartzen du, euskararen normalizaziorako kudeaketa- eta erabilera-esparru bat. Era berean, adierazi du HPSk SAREGIN izeneko aplikazioa erraztu duela, eta, besteak beste, Kuadrillako langileen

**6.- APROBACIÓN DEL PLAN DE NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA, SÉPTIMO PERIODO DE PLANIFICACIÓN (2023-2027)**

El presidente cede la palabra al Juntero Unai Sáez de Ocariz Samaniego quien manifiesta que existen preguntas registradas sobre el plan de normalización del uso del euskera, pero que serán contestadas en el turno de ruegos y preguntas. Por ello, da paso a la técnica de euskera quien accede a la sala.

Procede la técnica a la presentación del plan indicando que, realmente, para la Cuadrilla de Montaña Alavesa se trata del tercer plan. En el primer plan, se realizó una declaración de intenciones, trabajando en el paisaje lingüístico y las relaciones con la ciudadanía. Por lo que respecta al segundo plan, se trabajó la imagen corporativa, la relación con la ciudadanía y las relaciones entre trabajadores.

Centrándose en el tercer plan, 2023-2027, indica que éste se basa en el nuevo Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco el cual establece un nuevo marco estratégico denominado KEMEN, que es un marco de gestión y uso para la normalización del euskera. Asimismo, señala que desde la VPL se ha facilitado una aplicación denominada SAREGIN que ha permitido, entre otras cosas, obtener información a través de los trabajadores de la Cuadrilla.

2025 - 4 17/10/2025
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
k0144708b0031107cb107e908b0a0a21J



bitartez informazioa lortzeko aukera eman duela.

Era berean, KEMEN metodologian oinarritutako lantalde bat eratu dela adierazi du. Adierazi du taldea presidenteak, bi batzarkidek eta bi teknikarik osatu dutela, eta, orain arte, hiru aldiz bildu direla diagnostikoa egiteko eta ahuleziak eta indarguneak aztertzeko. Horrela, lortutako datuekin plana egin da.

Azaldu duenez, eragin-eremua Arabako Mendialdeko Kuadrilla da, eta onartzen denetik 2027. urtearen amaierara arte izango ditu ondorioak.

Arabako Mendialdearen egoera soziolinguistikoa azaldu ondoren, landu diren dierazleak azaldu ditu.

Planak kudeaketa-erronka hauek jasotzen dituela adierazi du: euskara-plana eguneroko kudeaketan txertatzea eta garatzea, plana garatzeko eta haren jarraipena egiteko teknikariek eta politikariek osatutako lantalde bat eratzea, kontratuetan hizkuntza-klausulak sartzea, hizkuntza ofizialen hizkuntza-irizpideak onartzea, adostea eta sartzea, eta langileen gaitasun-maila hobetzea. Erabilera-erronkei dagokienez, herritarrekiko harremanetan hizkuntza-irizpideak bermatu nahi dira, eta langileen eta kargu publikodunen motibazioa eta sentsibilizazioa sustatu eta areagotu, euskararen aldeko hizkuntza-ohiturak aktibatzeko.

Aurkezpena egin ondoren, teknika aretotik irten eta eztabaida ireki da.

Ana Asunción Fernandez de Monje Alzola andreak adierazi du aktan berariaz jasota geratzea nahi duela euskara sustatzearen alde dagoela, baina abstenitu egingo dela; izan ere, langile guztiak maila berean jarri dira derrigortasun data duen lanpostu bat gehiago behar zenean, eta horrek eragina izan dezake zerbitzuetan guztiek euskara ikastea erabakitzen badute. Kezkatuta dagoela

Asimismo, señala que se ha conformado un grupo de trabajo basado en la metodología KEMEN. Manifiesta que el grupo ha estado conformado por el presidente, dos junteros y dos técnicos que se han reunido, hasta la fecha, en tres ocasiones para abordar el diagnostico y analizar las debilidades y fortalezas. Así, con los datos obtenidos se ha elaborado el plan.

Continúa explicando que el ámbito de influencia es la Cuadrilla de Montaña Alavesa y que surtirá efectos desde el momento de su aprobación hasta finales de 2027.

Tras exponer la situación sociolingüística de la Montaña Alavesa explica los indicadores que se han trabajado.

Manifiesta que el plan recoge como retos de gestión: integrar y desarrollar el plan de euskera en la gestión diaria, constituir un grupo de trabajo conformado por técnicos y políticos para el desarrollo y seguimiento del plan, introducir cláusulas lingüísticas en los contratos, aprobar, acordar e introducir los criterios lingüísticos de las lenguas oficiales y mejorar el nivel de competencia del personal. En lo que respecta a los retos de uso, se pretende garantizar los criterios lingüísticos en las relaciones con la ciudadanía, así como, fomentar y aumentar la motivación y sensibilización del personal y cargos públicos para activar los hábitos lingüísticos a favor del euskera.

Realizada la presentación, la técnica abandona la sala y se abre el debate.

Toma la palabra Dª. Ana Asunción Fernandez de Monje Alzola, para indicar que desea que conste expresamente en acta que está a favor de que se fomente el euskera, pero que se abstendrá, puesto que, se ha perfilado a todos los trabajadores por igual cuando únicamente se necesitaba una plaza más con fecha de preceptividad, lo que puede tener afecciones en los servicios si todos decidieran estudiar Euskera. Manifiesta su preocupación respecto a que los

2025 - 4
17/10/2025
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
k0144708b0031107cb107e908b0a0a21J



adierazi du, udaletako zerbitzuak arretarik gabe gera daitezkeelako.

Unai Sáez de Ocariz Samaniego batzarkideak erantzun du derrigortasun-data gai-zerrendako hurrengo puntuan jorratuko dela. Hala ere, adierazi du lanpostuek dagoeneko badutela hizkuntza-eskakizuna. Adierazi du hurrengo puntuan proposatzen dena lanpostu guztiei derrigortasun-data ezartzea dela.

Fernandez de Monje Alzola andreak galdetu du zer gertatzen den derrigortasun-data betetzen ez bada. Unai Sáez de Ocariz Samaniego jaunak erantzun du proposatutako aldaketak ez duela eraginik izango egungo plantillan; izan ere, egonkortze-prozesua amaitu da, eta derrigortasun-datarik ez duten lanpostuetako langileek 45 urte baino gehiago zituzten plangintzaldiaren hasieran. Ondorioz, salbuetsita daude horiek betetzetik. Era berean, adierazi du etorkizunean sartuko diren pertsonek bete beharko dutela.

Batzarkide horrek gaineratu du euskara ikasteko eskubidea Kuadrillako lan-harremanak arautzen dituen hitzarmenean jasota dagoela, hau da, Udalhitzen. Hala, adierazten du langileak bere borondatez lanorduetatik kanpo euskara ikastea erabakitzen badu, hitzarmen horrek aurreikusten duela klasean emandako orduen % 50 liberatzeko eskubidea izango duela, baldintza jakin batzuetan.

Batzarkideak jarraitu du esanez langile askok eskatuko balute euskara ikasteko, ikasketa-plan bat egin beharko litzatekeela eta erantzuteko modurik onena ikusi. Gaineratu du euskara-plan batek ezin dituela ondoriorik gabe utzi hitzarmen batean jasotako eskubideak.

Ana Asunción Fernandez de Monje Alzola batzarkideak hartu du berriz ere hitza, eta adierazi du argi utzi nahi duela euskararen alde dagoela, baina teknikariak askatzeak udalek ematen dituzten zerbitzuetan eragindako ondorioak kezkatzen duela.

servicios de los ayuntamientos puedan quedar desatendidos.

Responde el juntero Unai Sáez de Ocariz Samaniego que la preceptividad se tratará en el siguiente punto del orden del día. No obstante, señala que las plazas ya poseen perfil lingüístico. Indica que lo que se propone en el punto siguiente es establecer la fecha de preceptividad a todos los puestos.

Pregunta la Sra. Fernandez de Monje Alzola que ocurre si no se cumple con la fecha de preceptividad. Responde D. Unai Sáez de Ocariz Samaniego señalando que el cambio propuesto no tendrá afección en plantilla actual, puesto que, se ha culminado el proceso de estabilización y los trabajadores, cuyas plazas no tienen fecha de preceptividad asignada, tenían más de 45 años al inicio del periodo de planificación. En consecuencia, están exentos de su cumplimiento. Manifiesta a su vez que el cumplimiento será necesario para aquellas personas que se incorporen a futuro.

Añade el citado juntero que el derecho a estudiar euskera viene recogido en el convenio que regula las relaciones laborales de la Cuadrilla, es decir, en el Udalhitz. Así, indica que, si el trabajador decidiera estudiar euskera voluntariamente fuera de sus horas de trabajo, el citado convenio prevé que tendrá derecho a liberar el 50% de las horas invertidas en clase, bajo unas determinadas condiciones.

Continua el juntero señalando que si fueran muchos los trabajadores que solicitasen el estudio del euskera, sería necesario realizar un plan de estudios y ver la mejor forma de responder. Añade que un plan de euskera no puede dejar sin efecto los derechos recogidos en un convenio.

Retoma la palabra la juntera Ana Asunción Fernandez de Monje Alzola para indicar que desea dejar claro que está a favor del euskera, pero que su preocupación radica en la afección que liberar a los técnicos pueda tener en los servicios que prestan en los Ayuntamientos.

17/10/2025
2025 - 4
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
k0144708b0031107cb107e908b0a0a21J



Urtzi Gaintzarain Gonzalez de Durana jaunak erantzun du erabaki horrek ez duela eskubiderik ematen, ezta kentzen ere; izan ere, eskubide horiek aitortuta badaude, bermatuta egon behar dute.

Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jaunak esan du euskararen aldeko jarrera babesten duten politika proaktiboak egin behar direla.

Unai Sáez de Ocariz Samaniego jaunak adierazi du gobernu-taldeak jarraitzen duen hizkuntza-politikak hizkuntza-eskubideen aldeko apustua egiten duela. Hala ere, adierazi du erabaki horrek ez diola eragingo egungo plantillari, eta, dena den, euskara ikasteko eskubidea izango dutela, nahiz eta derrigortasun-datarik ezarri ez.

Batzarkide horrek eta Urtzi Gaintzarain Gonzalez de Durana jaunak hitzarmena bete behar dela adierazi dute.

Gaia eztabaidatu da, sei batzarkideren aldeko botoarekin (Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jauna, Urtzi Gaintzarain González de Durana jauna, Rafael Nuñez Murillo jauna, Myriam Quintana Urrea andrea, Unai Sáez de Ocariz Samaniego jauna eta Alfredo Vicuña Ibañez jauna) eta Larraitz Waliño Arana, Lucia Elorza Lorenzo, Ana Asunción Fernandez de Monje Alzola eta Enrique Javier Moraza Pérez jaun-andreen abstentzioarekin, euskararen erabilera normalizatzeko 7. plangintzaldiko (2023-2027) plana onartzea erabaki da.

**7.- <u>LANPOSTU-ZERRENDA ALDATZEKO PROPOSAMENA, DERRIGORTASUN-DATAK EZARTZEKO.</u>**

Aurreko puntuan eztabaidatutakoaren harira, Unai Sáez de Ocariz Samaniego batzarkideak adierazi du proposamena lanpostu guztiei derrigortasun-data ezartzea dela. Horretarako, langile guztien egoera zehatza kontuan hartu dela adierazi du, eta gaur egun betetzen ez dituztenak adinagatik salbuetsita daudela errepikatu du. Era berean, erabaki politikoa dela adierazi du.

Contesta D. Urtzi Gaintzarain Gonzalez de Durana indicando que esta decisión no otorga ni quita derechos, ya que, si estos derechos se encuentran reconocidos, los mismos deben estar garantizados.

Prosigue D. Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz para señalar que es necesario realizar políticas proactivas que respalden el posicionamiento a favor del euskera.

D. Unai Sáez de Ocariz Samaniego señala que la política lingüística que sigue el equipo de gobierno apuesta por los derechos lingüísticos. No obstante, indica que la plantilla actual no se verá afectada por esta decisión y que, con independencia de todo ello, el derecho a estudiar euskera lo tendrían pese a no haber establecido fechas de preceptividad.

Tanto el citado juntero como D. Urtzi Gaintzarain Gonzalez de Durana indican que se ha de cumplir con el convenio.

Debatido el asunto, con el voto a favor de seis junteros/as (D. Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz, D. Urtzi Gaintzarain González de Durana, D. Rafael Nuñez Murillo, Dª. Myriam Quintana Urrea, D. Unai Sáez de Ocariz Samaniego y D. Alfredo Vicuña Ibañez) y la abstención de Dª Larraitz Waliño Arana, Dª Lucia Elorza Lorenzo, Dª Ana Asunción Fernandez de Monje Alzola y D. Enrique Javier Moraza Pérez se acuerda aprobar el plan de normalización del uso del euskera 7º periodo de planificación (2023-2027).

**7.- <u>PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LA RPT PARA EL ESTABLECIMIENTO DE FECHAS DE PRECEPTIVIDAD.</u>**

Al hilo de lo debatido en el punto anterior, indica el juntero Unai Sáez de Ocariz Samaniego que la propuesta es establecer fecha de preceptividad a todos los puestos de trabajo. Para ello señala que se ha tenido en cuenta la situación concreta de todos los trabajadores, reiterando que quienes en la actualidad no cumplen se encuentran exentos por su edad. Asimismo, manifiesta que se trata de una decisión política.

2025 - 4
17/10/2025
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
k0144708b0031107cb107e908b0a0a21J



Ana Asunción Fernandez de Monje Alzola andreak galdetu du zer profil dituzten esleituta langileek. Unai Sáez de Ocariz Samaniego batzarkideak erantzun du teknikariek, A taldeak, 3. -4. HE eta C taldeak 2. HE dituztela ezarrita.

Era berean, adierazi du egia dela derrigortasun-indizea betetzeko nahikoa izango litzatekeela beste plaza batean ezartzea, baina ez duela ulertzen hori ez egiteak ekarriko lukeen tanta-jarioari eustea, etorkizunera begira ezarri egin beharko liratekeelako.

Gaia eztabaidatuta, Kuadrillako Batzarrak, Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz, Urtzi Gaintzarain González de Durana, Rafael Nuñez Murillo, Myriam Quintana Urrea, Unai Sáez de Ocariz Samaniego eta Alfredo Vicuña Ibañez jaun-andreen aldeko botoekin, eta Larraitz Waliño Arana, Lucia Elorza Lorenzo, Ana Asunción Fernandez de Monje Alzola eta Enrique Javier Moraza Pérez jaun-andreen abstentzioarekin, honako erabaki hauek hartu ditu:

LEHENENGOA.- Lanpostuen zerrendan honako aldaketa hauek onartzea, gaur, 2025eko uztailaren 30ean, bilkura egingo den egunean, adierazten diren plazei derrigortasun-data esleitzeko. Aldaketa honela geratuko da:

| Lanpostua | Hizkuntz eskakizuna | Derrigortasun data |
|---|---|---|
| Arkitektoa | 3 | 2025/07/30 |
| Arkitektoa | 3 | 2025/07/30 |
| Arkitekto teknikoa | 3 | 2025/07/30 |
| Atxibozaina | 2 | 2025/07/30 |
| Administratia | 2 | 2025/07/30 |
| Administrari laguntzailea | 2 | 2025/07/30 |
| Sustapen ekonomiko teknikaria | 3 | 2025/07/30 |
| Animatzaile soziokulturala | 3 | 2025/07/30 |

Dª. Ana Asunción Fernandez de Monje Alzola pregunta que perfiles tienen asignados los trabajadores. El Juntero Unai Sáez de Ocariz Samaniego responde que los técnicos, el grupo A, tienen establecidos el PL3-PL4 y el grupo C el PL2.

Señala asimismo que, si bien es cierto que para cumplir con el índice de preceptividad bastaría con establecerlo en una plaza más, no entiende mantener el goteo que supondría no hacerlo, ya que, de cara a un futuro habría que ir estableciéndolos.

Debatido el asunto, la Junta de Cuadrilla, con el voto a favor de D. Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz, D. Urtzi Gaintzarain González de Durana, D. Rafael Nuñez Murillo, Dª. Myriam Quintana Urrea, D. Unai Sáez de Ocariz Samaniego y D. Alfredo Vicuña Ibañez y la abstención de Dª. Larraitz Waliño Arana, Dª Lucia Elorza Lorenzo, Dª Ana Asunción Fernandez de Monje Alzola y D. Enrique Javier Moraza Pérez, adopta los siguientes acuerdos:

PRIMERO.- Aprobar las siguientes modificaciones de la Relación de Puestos de Trabajo para asignar la fecha de preceptividad a las plazas que a continuación se señalan con fecha de hoy, 30 de julio de 2025, día de celebración de la sesión, quedando la modificación de la siguiente forma:

| Puesto de trabajo | Perfil lingüístico | Fecha de preceptividad |
|---|---|---|
| Arquitecto/a | 3 | 30/07/2025 |
| Arquitecto/a técnico | 3 | 30/07/2025 |
| Archivero | 2 | 30/07/2025 |
| Administrativo /a | 2 | 30/07/2025 |
| Aux. Administrtaivo /a | 2 | 30/07/2025 |
| Técnico/a de promoción económica | 3 | 30/07/2025 |
| Animador/a sociocultural | 3 | 30/07/2025 |

17/10/2025
2025 - 4
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
k0144708b0031107cb107e908b0a0a21J



BIGARRENA.- Aldaketa honek onartzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

HIRUGARRENA.- Hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-datari buruzko aldaketa ALHAOn argitaratzea, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Arabako Foru Aldundiko Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailari eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari.

SEGUNDO.- Esta modificación surtirá efectos desde su aprobación.

TERCERO.- Publicar la modificación referente a la fecha de preceptividad de los perfiles lingüísticos en el BOTHA, conforme a lo previsto en el artículo 45.3 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

CUARTO.- Comunicar el presente acuerdo al Departamento de Administración Local y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava y al Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco.

**8.- SEKTORE PUBLIKOAREN ZERBITZUKO LANGILEEN ORDAINSARIETAN %0,5EKO IGOERA GEHIGARRIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Presidenteak adierazi duenez, ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretua aplikatuz (Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazketatik eratorritako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurri jakin batzuk luzatzen dituena eta zerga-, energia- eta gizarte-arloan presako neurriak hartzen dituena), kuadrillako langileei soldata-igoerak aplikatu izan zaizkie.

Adierazten du Errege Dekretu horren 6.2 artikuluak jasotzen zuenez, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, hala badagokio, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarri eta kontsolidagarria aplikatuko litzatekeela 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko, 2022., 2023. eta 2024. urteetako KPIHaren aldaketaren baturak 2022., 2023. eta 2024. urteetan metatutako ordainsari-igoera finkoa gainditzen bazuen. INEk urtarrilaren 15ean argitaratu zuen bezala, KPIHa

**8.- APROBACIÓN SI PROCEDE DEL INCREMENTO RETRIBUTIVO ADICIONAL DEL 0,5% DEL PERSONAL AL SERVICIO DEL SECTOR PÚBLICO.**

Señala el Presidente que en aplicación del Real Decreto-ley 4/2024, de 26 de junio, por el que se prorrogan determinadas medidas para afrontar las consecuencias económicas y sociales derivadas de los conflictos en Ucrania y Oriente Próximo y se adoptan medidas urgentes en materia fiscal, energética y social se han venido aplicando distintos incrementos salariales que se han ido aplicando a los trabajadores de la Cuadrilla.

Indica que el art. 6.2 del citado Real Decreto, recogía que, con efectos de 1 de enero de 2024, se aplicaría, en su caso, un incremento retributivo adicional y consolidable del 0,5 por ciento, respecto a las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2023, si la suma de la variación del IPCA de los años 2022, 2023 y 2024 superaba el incremento retributivo fijo acumulado de 2022, 2023 y 2024. Tal y como publicó el 15 de enero el INE, el IPCA ha sido del 12% y el incremento retributivo fijo acumulado

17/10/2025
2025 - 4
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
k0144708b0031107cb107e908b0a0a21J



% 12koa izan da, eta % 8ko ordainsari-igoera finko metatua; beraz, igoera hori aplikatu behar da.

Ondorioz, Ministroen Kontseiluak uztailaren 1ean egindako bileran hartutako erabakiaren bidez (uztailaren 2an argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean), aipatutako igoera onartu da.

Aurrekoa ikusita, Kuadrillako Batzarrak, batzarkideen aho batez, honako ERABAKI hau hartu du: Kuadrillako langileen ordainsarien % 0,5eko igoera osagarria onartzea, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazketatik eratorritako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurri jakin batzuk luzatzen dituen eta zerga-, energia- eta gizarte-arloan presako neurriak hartzen dituen ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

del 8%, por lo que procede la aplicación de esa subida.

En consecuencia, por Acuerdo de Consejo de Ministros en su reunión celebrada el 1 de julio, publicado en el Boletín Oficial del Estado el 2 de julio, se ha aprobado el incremento señalado.

A la vista de lo anterior, la Junta de Cuadrilla adopta, por unanimidad de los/as junteros/as, el siguiente ACUERDO: Aprobar el incremento complementario del 0,5% de las retribuciones del personal al servicio de la Cuadrilla conforme a lo previsto en el artículo 6.2 del Real Decreto-ley 4/2024, de 26 de junio, por el que se prorrogan determinadas medidas para afrontar las consecuencias económicas y sociales derivadas de los conflictos en Ucrania y Oriente Próximo y se adoptan medidas urgentes en materia fiscal, energética y social.

**9.- INTERPELAZIOAK, IZAPIDEGAIAK ETA PRESAZKOAK**

**PRESARI BURUZKO AZALPENA**

Presidenteak jakinarazi du ez zela gai-zerrendan sartu inbertsio turistikoen proiektuak onartzeari eta gauzatzeari buruzko puntua, baina sartzeko proposamena bilkura egin baino lehen bidali zela. Puntu hori sartzea premiazkoa dela justifikatu du; izan ere, proiektuetako bat gauzatzeko hornidura lizitatu beharko da, horrek suposatzen duen denborarekin, eta proiektua 2025eko abenduaren 13rako gauzatu eta justifikatu behar da.

Gai-zerrendan puntu berria sartzeko bozketa egin da, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta batzarkideek aho batez berretsi dute honako hauek sartu direla gai-zerrendan:

**9.- INTERPELACIONES, ASUNTOS DE TRÁMITE Y URGENTES**

**PRONUNCIAMIENTO SOBRE LA URGENCIA**

El presidente informa que no se incluyó en el orden del día el punto relativo a la aprobación y ejecución de los proyectos de inversiones turísticas, pero que se remitió la propuesta de inclusión con anterioridad a la fecha de celebración de la sesión. Justifica la urgencia de incorporar este punto, ya que, para la ejecución de uno de los proyectos habrá que licitar el suministro, con el tiempo que ello conlleva y el proyecto debe estar ejecutado y justificado para el 13 diciembre de 2025.

